

# Bidezko Merkataritzaren I. Gozogintza Lehiaketaren oinarriak

2014ko maiatzaren 10ean, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Hori dela eta, egun hau ospatzen dugun erakundeen partzuergoak Bidezko Merkataritzaren I. Gozogintza Lehiaketa egingo dugu. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

1. 18 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte eta nahi beste jaki aurkeztu ahalko ditu.
2. Lehiaketara aurkeztutako gozoki guztiek izan beharko dute, gutxienez, Bidezko Merkataritzako osagai bat (bidezko merkataritzako kakaoa lehenetsi egingo da, aurtengo kanpainaren gai nagusia delako), baina aintzat hartuko da Bidezko Merkataritzako, bertako edota produktu ekologiko bat baino gehiago erabiltzea. Baldintza hau bermatzeko, parte-hartzaileek, maiatzaren 10ean bertan, Bilboko Areatzako Kaian, izen-emate fitxa bete eta eman beharko dute, eta baita dagokion errezeta ere, 17:00etatik 18:00etara. Errezeta makinaz edo ordenagailuz idatziko da eta erabilitako osagaiak deskribatuko dira, dagokien kopurua eta prozesua adieraziz, eta zehaztu zein diren Bidezko Merkataritzako produktuak eta zein bertako produktu eta produktu ekologikoak. Halaber, parte-hartzaileek, errezetan erabilitako Bidezko Merkataritzako produktuen ontziak, paketeak eta bilgarriak aurkeztu beharko dituzte.
3. Izen-emate fitxarekin batera, parte-hartzaileek beren jakia aurkeztuko dute larunbatean, 2014ko maiatzaren 10ean, 17:00etatik 18:00etara, Bilboko Areatzako Kaian. Parte-hartzaileek erakundeari gozoki bakoitzetik gutxienez hiru anoaren kopuru baliokidea emateko konpromisoa hartzen dute, platera beste hainbeste pertsonak dasta dezaten.
4. Jakia aurkezterako orduan, lanak erakunde antolatzaileen esku geldituko dira eta ondoren, epaiak dastatu egingo ditu. Epaimahaia erakundeko kide batek, gizarte zibileko pertsona batek eta Leioako Ostalaritza Eskolako beste kide batek osatuko dute, eta aurkeztutako artetik hiru gozokirik onenak aurkeztuko dituzte.
5. Erakunde antolatzaileak eskumena izango du errezetak eta jaki eta parte-hartzaileen argazkiak Internet edo inprimaki bidez zabaltzeko, baita Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundeak ere.
6. Hiru lan onenek Bidezko Merkataritzaren sari bana eskuratuko dute lehiaketaren bukaeran.
7. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du, baita epaimahaiaren erabakia onartzen dela ere. Epaimahaiak erabakia maiatzaren 10ean bertan hartuko du, 18:00ak eta 19:00ak bitartean, Bilboko Areatzako Kaian.
8. Oinarrietan zehaztu gabeko edozein gorabehera izanez gero, antolatzaileek konponduko dute, eta ezingo da haien erabakiaren kontrako erreklamaziorik aurkeztu.

## **BIDEZKO MERKATARITZAREN I. GOZOGINTZA LEHIAKETAN IZENA EMATEKO FITXA**

Izena eman duen pertsonak adierazten du badaukala lehiaketaren oinarrien berri eta lehiaketara aurkeztutako platera/k beharrezko baldintzak betetzen dituela bermatzen du.

Izena:	Abizenak:
Helbidea:	NANa:
Telefonoa:	E-maila:
Sinadura:	

**Adierazi jarraian, informazioa ordenagailuz edo makinaz idatziz:**

**1. Lehiaketara aurkeztutako jakiaren izena.**

**2. Erabilitako osagaiak. Kopurua adierazi eta Bidezko Merkataritzakoak, bertakoak edota ekologikoak diren zehaztu.**

**3. Nola egin den azaldu.**